



AABBe atzo Donostian emandako prentsurrekoa. CARLOS VILLAGRAN

Herrera de la Mancha-rako martxa abenduaren 28-29 an burutuko da

AABBen ustez presoen Eskubideak zaintzea Gizarte osoaren ardura da

Abenduaren 28-29an burutuko da AABBe antolatutako aurtengo Herrera de la Mancha-rako martxa. Atzo Donostian prentsurreko batez jakin erazi zenez, 'Presoak Euskadira Amnistia Osoa' lema pean antolatuko den ekitaldiaren baitan, lehen aldiz Iparraldetik adar bat aterako da Pariserantz.

DONOSTIA

Juan Mari Olano AABBetako (Amnistiaren aldeko Batzordeak) ordezkariak presoen Giza Eskubideak defendatzea AABBen patrimonioa ez dela, gizarte osoarena baizik adierazi zuen atzo Donostian. Erakunde honen Eguberrietako kanpainaren aurkezpenean «Herri

honetan ez da normalkuntza politikorik gertatuko preso diren 500 euskaldun preso, 1.000 errefuxiatu eta 52 deportatuak gure artean ez dauden eta beren izatearen zio politikoak desagertzen ez diren bitartean» baieztatu zuen Olanok.

Instituzio Penitentiarietako zuzendari den Antoni Asuncion-i erantzunez, «Zalakainek ez zuen hirugarren mailarik onartu, nahiz Martuteneko zuzendariak gradu horren baitan sartuko zutela adierazi zion» ziurtatu zuen AABBetako ordezkariak. «Egoera sanitarioarekin txantaiatu egiten dute euskal preso politikoa eta gaur egun, XX. mendean, munduko beste edozein herri-tan gertatzen ez den bezala, preso bat

laguntza mediku ezaz hil egiten da, Zalakainen kasuak agerian utzi duenez», salatu zen. Bestalde, AABBetako ordezkariak dei berezi bat egin zieten preso ohi eta senideei Herrera de la Manchako martxara ager daitezen.

Pepi Gorostidik senideen ize-nean, abokatuei presoekin komunikatzeko oztopoak jarri zaizkienetik senideek eskuratu duten garrantzia aipatu zuen eta «hilaren 16an hauek burutuko duten Asanblada

Nazionala iragarri. Arnaldo Otegi preso ohiak ere presoaren konpromezua kanporatzearekin ez dela amaitzen ziurtatu eta presoek Barrutik aldizkariaren beste alea argiratu-tuko dutela esan zuen.

✓ **Espetxe espaino-letan egoera sanitarioarekin txantaiatu egiten dute euskal preso politikoa**


Egiagarai: «Euskal autonomia, ulertezina Konstituziotik at»

GASTEIZ

Juan Manuel Egiagarai, Madrilgo Gobernuak Euskal Autonomi Elkartean duen ordezkariak EAEko autogobernuaren «babesa eta bermatasuna» espainiar Konstituzioan kokatu zuen atzo. Are gehiago, «euskal autonomia ulertezina da Konstituzioaren esparrutik at» esan zuen Juan Manuel Egiagaraiak.

Gaur burutuko den espainiar Konstituzioaren hamabigarren urteurrena dela eta, Madrilgo Gobernuaren Ordezkaritzak antolatu zuen ospakizun bileran egin zituen adierazpen hauek Juan Manuel Egiagaraiak.

Bilera honetara ez zen partidu abertzaleetako ordezkariarik agertu, ezta Gasteizko Gobernuorik. Atzokoa, Madrilgo Gobernuaren ordezkariak antolatzen duen ezaguri hauetako lehen ekitaldia izan zen. Juan Manuel Egiagaraiak berak azaldu zuen ekitaldiaren motiboa: «bizitza sozial eta politikoaren ikuspegi demokratikoa konpartitzen du-



Juan Manuel Egiagarai.

gunen arteko oinarritzko elkar ulertzerantz urratsak ematen jarraitu nahi dugu, legitimoki aldarrikatzen dugun ideologia alde batera utziz».

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, «ez da posiblea ez ja-kitea gure artean Espainiako beste parte batzuetan baino kontsentsuaren oinarritzko puntuak ezartzeko zailtasun gehiago izan dela», esan zuen Egiagaraiak.

Konstituzioaren aldaketa mamitsua eskatu du HBk

BILBO

Herri Batasunaren eritziz, Espainiako Konstituzioa «aldaketa mamitsu baten beharrez dago, herrien autodeterminazioarako eskubidea eta Estatuaren nazioaniztasuna onartu eta burujabetasuna berau osatzen duten herri desberdinen esku utzi dezan».

Espainiar Konstituzioaren hamabigarren urteurrena gaur dela eta, HBko Mahai Nazionalak uko egin dio, berriz ere, karta magnari, «zutik bait diraute oraindik bere garaian haren aurka jarri erazi gintuzten arazoek». Atzo zabalduko ohar baten

bidez, «1978ko Konstituzioak emaitza nabarmenki negatiboak izan ditu, bai Estatuarentzat, bai Euskal Herria bezalako nazioarentzat», gehitu du Herri Batasunak.

Bestalde, Euzko Gaztedi Indarra taldeak, berretsi «ezezko borobila» eman dio Espainiako Konstituzioari, beronen hamabigarren urteurrenean, atzo igorritako komunikatu baten bidez. Euzko Alderdi Jeltzaleko gazteriak onartu egiten du Konstituzioak «lorpenak» izan dituela, baina azpimarratu egiten dute «edozein herrik edo nazio duen eskubidea Autodeterminazio Eskubidea aldarrikatzeko».

Presta itzazu Gabon-jaiak preziorik onenean



EROSKI

ZORIONAK